

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Garesen ospatuko da larunbat honetan Kanpoan diren Nafarren Egunaren XXX. edizioa

Udalerriz aldatzen da urtero, eta Foru Komunitatetik kanpo bizi diren nafarrak batzeko aukera eskaintzen du

Astelehena, 2018.eko maiatzak 28

Nafarroako Gares herrian antolatuko da larunbat honetan, ekainak 2, Kanpoan diren Nafarren XXX. Eguna, urtero Foru Komunitatetik kanpo bizi diren nafarrak biltzeko aukera eskaintzen duen ospakizuna.

Ekitaldien programa gaur goizean aurkeztu du prentsaurrekoan Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako kontseilari Ana Ollok, ondoan Garesko alkate Oihan Mendo eta ospakizuna antolatzen duen Nafarroako Etxeen Federazio Nazionaleko lehendakari Iciar Ortiz de Urbina zituelarik.



Garesko alkate Oihan Mendo, Ana Ollok kontseilaria eta Nafarroako Etxeen Federazio Nazionaleko lehendakari Iciar Ortiz de Urbina.

Ollok kontseilariak berretsi du Nafarroako Gobernuak “beste eskualde eta herrialde batzuetan finkatutako nafar etxe eta zentroei” ematen dien babesa. Halaber, kontseilariak “Gobernuak ospakizun honi ematen dion funtsezko laguntza” aipatu du, “nahar herritarrek gure mugetatik at bizi diren nafarrei eskaintzen dieten harrera ona, estimua eta elkartasuna irudikatzen baitu”.

Era berean, Ana Ollok aurtengo ospakizuna egingo den herria aipatu du. “Gares, leku historikoa inon halakorik izatekotan, Europatik datozen Done Jakue Bideko ibilbide desberdinen arteko giltzarrizko bateragunea eta maila goreneko multzo artistikoa”.

Adierazi duenez, topaketa honetan Estatuko geografia osoan zehar sabanatuta dauden nafar etxeen ordezkariak biltzea espero da (Kantabria, Burgos, Bilbo, Barakaldo, Arrasate, Gasteiz, Logroño, Zaragoza, Valladolid, Madril, Bartzelona eta Valentzia). Horientzat guztientzat, [ekitaldi sorta](#) zabala prestatu da bezperatik hasita, izan ere, ostiralean, ekainak 1, bisita gidatua antolatuko da herrian zehar eta ekitaldien aurkezpena Udaletxean, Emilio Arrieta Abesbatzaren emanaldi batez eta Nafar Etxeen Federazioak herriari eskainiko dion omenaldiaz.

Ekitaldien programa

Kanpoan diren Nafarren hogeita hamargarren Eguneko ekitaldiak larunbatean abiatuko dira, ekainak 2, 11:15etik aurrera, bisita gidatuen hasierarekin eta Julian Mena plazan agintariei egingo zaien ongi etorriarekin. 11:45ean, Erraldoi eta Buruhandien Kalejira egingo da Done Jakueren Elizaraino, eta bertan, meza kantatua egingen da 12:00etatik aurrera. 12:45ea, Done Jakueren omenezko aurora egingo da elizako atarian Garesko Done Jakueko Auroren Elkartearen eskutik.

Gainera, 12:00etan, bisita gidatua egingen da herriko interes turistiko handieko lekuetan zehar. 13:00etan, txupinazoa jaurti eta hamaiketakoa hasiko da Julián Mena Plaza.

Udaletxeko Batzar Aretoan 13:15ean egingo den harrera ofizialaren ondoren, Laia Lasterketa erakustaldia egingen da Nafar Laiariak taldearen eskutik, baita Zarpantzarrak ere.

14:30etan, herri bazkaria hasiko da Zamariain Udal Pilotalekuan, Orquesta Digital taldearen animazioarekin 16:30etatik aurrera. Ekitaldiak 19:00etan bukatuko dira.

Ospakizun honek Nafarroako Gobernuak emandako 20.000 euroko dirulaguntza du, Gareseraino hurbilduko direnen joan-etorriak nahiz emanaldi artistikoak eta antolaketa-gastuak finantzatzeko.

XXX. edizioa

Kanpoan dauden Nafarren Eguna 1989tik ospatzen da; beraz, aurtengo topaketarekin hogeita hamargarren urteurrena beteko du. Udalerriz aldatzen da urtero, eta 2017an Erriberako Cascante herrian antolatu zen. Orain arte Foru Komunitatetik at bizi diren nafarrak honako toki hauetan bildu dira: Corella (bi aldiz), Lizarra, Erriberri, Zangoza, Tuteria, Iruña, Elizondo, Viana, Irunberri, Azkoien, Erronkari, Tafalla, Lodosa, Agoitz, Los Arcos, Otsagabia, Milagro, Auritz, Fitero, Arguedas, Artaxoa, Funes, Ultzama, Mendabia, Izaba, Andosilla, Lekumberri eta Cascante..